



AA/ig

E-OH-081/18
12-OH

EBAZPENA – RESOLUCIÓN

Donostia, 2018ko ekainaren 12a
San Sebastián, a 12 de junio de 2018

Galtzaraberi presa txikiak garai bateko zentral hidroelektriko baten hargunea da; zentral hori erabilpenik gabe dago gaur egun eta bere emakidapea iraungita dago. Presa Oiartzungo udalerrian kokatzen da eta Oiartzun ibaiaren adarra den Karrika errekaaren arroan eraikita dago.

Galtzaraberi presa Aiako Harriaren parke naturalaren mugen barnean dago, kontserbazio aktiboko eremu batean, hain zuzen. Halaber, Natura 2000 Sarean dagoen Aiako Harria ES2120016 KBE-aren mugen barnean dago (KBE – kontserbazio bereziko eremua). Presa bera leheneratze ekologiko eremu bat da, habitat eta ibai espezieak babestera bideratua, horietako batzuei presa txikiak sortutako oztopo efektuak eragiten baitie.

Gipuzkoako ibaietan arrainei bidea galarazten dieten eta ibaiertzen egoera aldatzen duten oztopo asko daudenez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusia inbertsio ahalegin handia egiten ari da ibai ekosistemaren ingurumena lehengoratzeko. Ekintza horien artean dago Galtzaraberi presa txikia iragazkortzea.

Galtzaraberi presa 32,50 metroko luzera du alboko horma bularren artean, eta 4 metro inguruko sekzio trapeziala. Ezpain finkoko gainezkabide bat eta hondoko hustubide bat dauka. Guztiz beteta dago ibai garraiaketaz.

Presan gora Urzelaieta baserrira doan bide bat dago, zeinak zubi baten bidez presaren urmaela zeharkatzen duen. Bide horrek erabilgarri egon behar du beti, aipatutako baserriak ez baitu beste sarbiderik. Zubiko horma bularrak hormigoi armatuzkoak dira eta zapataren bidezko gainazaleko zimentazioa dute. Horregatik, presa eraitsi eta gero, garraiaketen husteak eraginik ez sortzeko, dagozkion neurriak hartu beharko dira.

El azud Galtzaraberi constituye la toma de una antigua central hidroeléctrica, ya fuera de uso, y cuya concesión está caducada. Se ubica en el término municipal de Oiartzun, y está construido en el cauce de la regata Karrika, afluente del río Oiartzun.

Queda incluido en los límites del Parque natural Aiako Harria, concretamente en un área zonificada como zona de conservación activa. Asimismo se incluye dentro de los límites de la ZEC Aiako Harria ES2120016, perteneciente a la Red Natura 2000, en la que el propio azud se zonifica como zona de restauración ecológica (ZEC-zonas especiales de conservación), que tiene por objeto la conservación de hábitats y especies fluviales, algunos de los cuales se ven afectados por el efecto barrera que generan los azudes.

Puesto que en los ríos guipuzcoanos existen numerosos obstáculos que limitan el paso de los peces y alteran el estado de sus márgenes, la Dirección de Obras Hidráulicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa está realizando un gran esfuerzo inversor con el fin de lograr la recuperación ambiental del ecosistema fluvial. Entre dichas acciones se incluye la permeabilización del azud Galtzaraberi.

La presa de Galtzaraberi tiene una longitud de 32,50 m entre estribos laterales y una sección trapezoidal de unos 4 m de altura. Dispone de un rebosadero de labio fijo y de un desagüe de fondo. Se encuentra totalmente colmatada de acarreo fluvial.

Agua arriba de la presa existe un camino de acceso al caserío Urzelaieta que cruza el remanso de la presa mediante un puente. Este camino debe estar operativo en todo momento ya que el citado caserío no tiene otra opción viable de acceso. Los estribos del puente son de hormigón armado y cimentados superficialmente mediante zapata, por lo que será necesario tomar las medidas oportunas para que no se vea afectado por efecto del vaciado de acarreo tras la demolición de la presa.



Ibilgua gurutzatu ondoren, bide hori presaren urmaelaren gertu doa eta, horregatik, bidearen tarte horretan kalteak izan daitezke presa eraitsi eta gero.

Presa bi fasetan eraitea proposatzen da, eraispentak dakartzan eraginak kontrolatzeko eta ebaluatzeko eta, beraz, higadurei aurre egiteko behar diren neurri zuzentzaileak aplikatzeko, hau da, auzo bidea dagoen eskuineko ibaiertza egonkortzea eta erreka gaineko zubia segurtasun baldintzetan mantentzea, nagusiki.

Lehenengo fasearen lanak kontratatzea proposatzen da orain, hau da, presaren zati bat eraitea, auzo bidea dagoen eskuineko ibaiertza sendotzeko harri lubeta eraikitzea, eta zubiaren zimenduak lurreztatzea, zubiaren egonkortasuna ziurtatzeko.

Behin lehenengo eraiste horrek sortutako higadurak eragindakoa ikusita, jakingo da, gutxi gorabehera, nola aldatuko den ibilgua presa guztiz desagertzen denean, eta baita hartu beharko diren neurri berriak ere. Hori guztia, presaren eraispent osoarekin batera, bere garaian idatziko den proiektu berri batean sartuko da, bigarren fasekoan, hain zuzen.

Proiektu hau "ibilgua iragazkortzea eta morfologia lehengoratzeko bestelako lanak egitea" izeneko proiektuaren esparruan egiten da eta Eskualde Garapenerako Europako Funtsak (FEDER) % 50 finantzatuko du Euskadiko 2014-2020 EGEF programa operatiboaren bitartez. EGEF programaren helburuen artean hauek daude: ingurumena zaintzea eta babestea, eta baliabideen efizientzia sustatzea. Bere laguntza konzentratzen da jarduera ekonomiko, sozial eta ingurumenekoak garatzean, lurralde garapen jasagarriaren aldeko estrategia baten alde.

Dagokion kontratazio espedienteak izapidetu da lanak gauzatzeko. Espedienteak jasotzen ditu proiektuaren zuinketa, kontratua gauzatzeko bete beharreko baldintza administratibo berezien agiria eta beste derrigorrezko dokumentuak.

Beraz, Obra Hidraulikoetako Zuzendari Nagusi honek

EBAZTEN DU

Lehenengo.- Onartzea KARRIKA ERREKAN GALTZARABERRI PRESA TXIKIAREN ERAISKETA PROIEKTUA. 1. FASEA (2018/64-BH-LL).

Tras cruzar el cauce, este camino discurre próximo al remanso de la presa, por lo que este tramo del camino también es susceptible de sufrir daños una vez sea demolida la presa.

Para controlar y evaluar los efectos de la demolición de la presa, y por lo tanto, la aplicación de las medidas correctoras frente a la erosión, que serán principalmente estabilizar la margen derecha que sustenta al camino vecinal, y mantener en servicio en todo momento en condiciones de seguridad el puente sobre la regata, se propone la demolición de la presa en dos fases.

Ahora se propone contratar las obras de la primera fase, donde se demolerá parcialmente la presa, se colocará una escollera de refuerzo en la margen derecha, donde se asienta el camino vecinal y también se asegurará la estabilidad del puente mediante el recalde de sus cimientos.

Una vez observados los efectos de la erosión producidos por esta primera demolición, se tendrá una idea de cómo evolucionará el cauce cuando desaparezca totalmente la presa y las nuevas medidas que será necesario tomar. Todo ello, junto con la demolición total de la presa, se incluirá en un nuevo proyecto, el de la segunda fase, que se redactará en su momento.

El presente proyecto se realiza en el ámbito del proyecto "Permeabilización de cauces y otros trabajos de recuperación morfológica" y será cofinanciado al 50 % por el Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER) a través del Programa Operativo del País Vasco 2014-2020. Entre los objetivos del POPV se encuentra conservar y proteger el medio ambiente así como promover la eficiencia de los recursos. Su ayuda se concentra en el desarrollo de actividades económicas, sociales y medioambientales a favor del desarrollo territorial sostenible.

Para la ejecución de las obras se ha instruido el correspondiente expediente de contratación, que comprende el replanteo del proyecto, el pliego de cláusulas administrativas particulares a las que habrá de ajustarse la ejecución del contrato y demás documentos preceptivos.

En consecuencia, este Director General de Obras Hidráulicas

RESUELVE

Primero.- Aprobar el Proyecto de DEMOLICIÓN DE LA PRESA DE GALTZARABERRI EN LA REGATA KARRIKA. FASE 1 (2018/64-BH-LL) cuyo



Aurrekontua 49.858,63 € euro da, eta horri gehitu behar zaio % 21eko BEZa (10.470,31 euro), guztira 60.328,94 euro, eta exekutatzeko epea bi (2) hilabetekoa da.

Kontratuaren balio zenbatetsia 59.830,36 € eurokoa da, gehi BEZa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 204. artikularekin lotutako 101-2c) artikularen ondorioetarako.

Bigarren.- Onartzea baldintza administratibo berezien agiria eta kontratazio espediente, eta abian jartzea kontratua esleitzeko prozedura ireki sinplifikatu laburtua.

Hirugarren.- Baimentzea kontratazio horri dagokion gastua, 60.328,94 eurokoa, barne hartzen dituen obra proiektua gauzatzeko exekuzioaren zenbateko osoa eta BEZari dagokiona, aurrekontuko 1.0920.210.612.01.01.2018 partidaren kargura.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio bideari. Interesatuek ebazpen honen aurka GORA JOTZEKO ERREKURTSOA aurkez diezaiokete Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuko foru diputatuari, jakinarazpenaren edo argitapenaren biharamunetik hasita HILABETEKO EPEAN. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

presupuesto de licitación asciende a 49.858,63 € más el IVA correspondiente con arreglo al tipo actualmente aplicable (21%) de 10.470,31 euros, total 60.328,94 €, IVA incluido, y con un plazo de ejecución de obra de dos (2) meses.

El valor estimado del contrato a los efectos de los artículos 101-2c) en relación con el artículo 204 de la LCSP es de 59.830,36 € más IVA.

Segundo.- Aprobar el pliego de cláusulas administrativas particulares y el expediente de contratación, y disponer la apertura del procedimiento de adjudicación por procedimiento abierto simplificado abreviado.

Tercero.- Autorizar el gasto correspondiente a dicha contratación por un importe de 60.328,94 euros que comprende el importe total de la ejecución del proyecto de obra y el IVA correspondiente con cargo a la partida presupuestaria 1.0920.210.612.01.01.2018.

La presente Resolución no pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer RECURSO DE ALZADA ante el Diputado Foral del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas en el plazo máximo de UN MES contado a partir del día siguiente al de su notificación o publicación, sin perjuicio de utilizar cualquier otro recurso que estimen pertinente.

**OBRA HIDRAULIKOETAKO ZUZENDARI NAGUSIA,
EL DIRECTOR GENERAL DE OBRAS HIDRÁULICAS,**

Izp./Fdo.: Felix Asensio Robles

